




ATZERRITARREN ONDORENGO DIREN GAZTEAK EAEn: (OKER IZENDATUTAKO) BIGARREN BELAUNALDIAK

Begirada honen bitartez, atzerritarren ondorengoak diren eta Euskadin bizi diren 0 eta 24 urte bitarteko gazteen egoera aztertuko dugu. Horretarako, azken Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak, 2011n eginak, emandako datuak erabiliko ditugu, eta honako gai hauek aztertuko ditugu: lehenik eta behin, biztanle multzo horri buruzko egitura-datuak EAEko hiru lurraldeetan, kopuruak, adina, sexua eta nazionalitatea aintzat hartuta; eta bigarrenik, atzerritarren ondorengo diren gazteen eta bertakoen arteko alderaketa, hezkuntzaren, lanaren eta etxebizitzaren arloei erreparatuta.

Literatura zientifikoan askotariko sailkapenak daude, baina gehienetan *bigarren belaunaldiak* deritzen kolektiboan sartzen dituzte herrialde jakin batean jaio diren baina gurasoetako bat, gutxienez, atzerrian jaioa duten pertsonak. Alabaina, gazteen kolektibo honen barne-aniztasuna jasotze aldera, honako sailkapen hau proposatzen du Ikuspegik:

- Bigarren belaunaldia osatzen dute EAEn jaiotako pertsonak eta 4 urte edo gutxiago zituztela familia berriro elkartzearen ondorioz etorritakoak, gurasoetako bat, gutxienez, atzerrian izanez gero. EAEn jaiotako eta sozializatutako ondorengoak eta herrialde hartzailean sozializatu ez diren arteko desberdintasunak direla-eta, 1.5 kategoria sortu dugu (5-11 urte zituztela berriro elkartutako pertsonak).
- Azkenik, 12-15 urte zituztela berriro elkartutako gazteak (1.25) eta 16 urtetik gora zituztela elkartutakoak (1.0) ia migratzaileen kategoriakotzat hartzen dira.

“Bigarren belaunaldiak”
kolektiboaren sailkapena




1. Atzerritarren ondorengoak diren EAEko gazteen ezaugarriak

1. grafikoan ageri dira atzerritarren ondorengo diren EAEko gazteen datuak, biztanleria osoaren datuekin alderatuta. 2011n, EAEko gazteen % 15,9 atzerritarren ondorengoak ziren; 76.914 pertsona, alegia.

Gazteen kolektiboa zehatz-mehatz aztertuz gero, gure sailkapenaren arabera (1. taula), ikusten dugu bigarren belaunaldia deritzen kolektiboa dela ugariena: atzerritarren ondorengoak diren gazteen % 60,6 (46.609 pertsona) EAEn jaio dira edo, familia berriro elkartzearen ondorioz, 4 urte edo gutxiago zituztela etorritakoak dira. Bestalde, % 17,7 (13.605 pertsona) 1.5 kategoriakoak dira; hau da, 5-11 urte zituztela berriro elkartutakoak. Azkenik, % 21,7 EAEa iritsi ziren 12 urte edo gehiago zituztela.

1. grafikoa. Guraso atzerritarrak dituzten 0-24 urte arteko gazteak euskal biztanlerian, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Lurralde historikoen arteko banaketari dagokionez, atzerritarren ondorengoak diren gazteen kopuru handiena biltzen duen lurraldea Bizkaia da, 76.914 gazteen % 49 bertan bizi baitira. Gipuzkoa bigarren lurraldea da, kopuruari begiratuz gero, gazteen % 29 biltzen baititu (13.555), eta atzetik dago Araba, kolektiboaren % 21 duena (4.515 pertsona).

Atzerritarren ondorengo diren gazteen adinari eta sexuari erreparatuta, lehenik eta behin, x taulan ikusten dugu kolektiboa osatzen duten 76.914 pertsona horietatik 36.755 (% 47,8) atzerrian jaio zirela, eta 40.160 (% 52,2), berriaz, Espainiako estatuan. Azken kolektibo hori izango litzateke, ohiko sailkapenen arabera, bigarren belaunaldia. Taula berean ikusten dugu, halaber, populazio horretan gizonak zertxobait ugariagoak direla: % 52,3 gizonak dira eta % 47,7 emakumeak. Salbuespen dira 20-24 urteko gazteak, baita 5-9 urteko adin-tartekoak ere, atzerrian jaio direnen kasuan (% 53,3 eta % 51,2 emakumeak dira, hurrenez hurren).

Gazteen adinari erreparatuta, jatorriaren arabera desberdintasun nabarmenak ageri dira 2. taulan. Espainiako estatuan jaiotako 40.160 gazte horietatik 17.750 (% 44,2) 0-4 urtekoak dira, eta 10.298 (% 25,6) 5-9 urtekoak. Bestalde, atzerrian jaiotako 36.755 gazteen artean, 21.303 (% 57,9) 16 eta 24 urte bitartekoak dira.

Atzerritarren ondorengoak diren gazteen nazionalitatea kontuan hartuta, lehenik eta behin nabari da nazionalitatea eta jatorrizko herrialdea bat datozela, oro har, bi aldagai horiek grafikoan gurutzatuta (2). Kategoria ugariena da atzerrian jaio diren eta nazionalitate atzerritarra duten gazteek osatzen dutena (% 43,7). Multzo nabarmena osatzen dute, halaber, atzerritarren ondorengoak diren eta EAEn bizi diren gazteen artean, espainiar nazionalitatea duten eta Espainiako estatuan jaio diren 29.704 gazteak (atzerritarren ondorengo diren gazteen % 38,6 eta bigarren belaunaldien % 63,7).


Orobat, azpimarratzekoak dira, kopuru txikiagoak izan arren, Espainian jaio diren eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonen portzentajea (% 13,6) eta atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatea dutenena (% 4,1). Horrenbestez, bigarren belaunaldia deritzon kolektibo horren barruan askotariko errealitateak aurkitzen ditugu, jatorrizko herrialdearen eta nazionalitatearen arabera.

1. taula. Atzerritarren ondorengoak diren gazteak, Ikuspegiren sailkapenaren arabera, 2011

	K	%
2.0B	46.609	60,6
1.5B	13.605	17,7
1.25B	6.697	8,7
1.0B	10.004	13
Guztira	76.914	100


Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

1. mapa. Gazteen banaketa EAEko lurralde historikoetan, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

2. grafikoa. Atzerritarren ondorengoak diren gazteak, nazionalitatearen eta jatorrizko herrialdearen arabera, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

2. taula. Atzerritarren ondorengoak diren gazteak EAEn, sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera, 2011


	Espainiako estatuan jaiotakoak			Atzerrian jaiotakoak			Guztira		
	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira	Gizona	Emakumea	Guztira
0-4 urte	53,9	46,1	17.750	52,7	47,3	1.668	53,8	46,2	19.418
5-9 urte	54,7	45,3	10.298	48,8	51,2	5.291	52,7	47,3	15.589
10-14 urte	51,6	48,4	5.153	50	50	8.493	50,6	49,4	13.646
15-19 urte	48,5	51,5	3.902	58,6	41,4	9.422	55,6	44,4	13.324
20-24 urte	53,6	46,4	3.057	46,7	53,3	11.881	48,1	51,9	14.938
Guztira	53,3	46,7	40.160	51,1	48,9	36.755	52,2	47,8	76.915

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

3. grafikoan ikusten dugu atzeritarren ondorengo diren EAEko gazteen artean espainiar nazionalitatea gailentzen dela, % 42,7 baitira espainiar nazionalitatea dutenak (32.827 pertsona). Dena dela, aurreko grafikoan (2) ikusten den bezala, jatorria atzerrian dutenak gailentzen dira (% 57,3). Espainiar nazionalitatea duten pertsona horien % 93,3 Espainiako estatuan jaiotakoak dira, edo 4 urtetik beherakoak zirela etorri ziren, familia berriro elkartzearen ondorioz; hau da, 2.0B izendatu dugun kolektiboko kide dira.

Gainerako nazionalitateei erreparatuta, marokoarrak du pisu handiena (% 8,4), gero errumaniarrak (% 7,6), baita Latino-amerikako zenbait nazionalitatek ere: Kolonbia(% 5,8), Bolivia (% 5,1), Ekuador (% 4,1)... Pisu gutxien dutenen artean, Nikaragua (% 0,7), Pakistan (% 0,8) eta Txina (% 0,8) ageri dira. Nazionalitateen pisuen arteko desberdintasun horiek ulertzen dira, neurri handi batean, Euskadiko migrazioen historiagatik; izan ere, nazionalitate batzuk (Kolonbia, Maroko, Ekuador...) migrazio-tradizio handia duite EAEn fenomeno hori hasi zenetik, eta beste batzuk (Nikaragua, Pakistan...) oraindik orain hasi dira gurera etortzen.

3. grafikoa. Atzeritarren ondorengoak diren gazteak, nazionalitate nagusien arabera, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

2. Bertakoen eta atzeritarren ondorengoaren arteko alderaketa EAEn: alderdi kultural eta sozioekonomikoak


Atal honetan, atzeritarren ondorengoak diren gazteen ezaugarriak azaltzen jarraitzeaz gainera, bertakoen kolektiboarekin alderatuko ditugu, gizartearen eta lanaren alorrean. Gurasoen giza kapitala funtsezkoa da atzeritarren ondorengoaren dinamika ulertzeko; izan ere, hainbat egileren arabera, zenbat eta handiagoa izan gurasoen giza kapitala, hainbat eta handiagoak izango dira seme-alaben aukera eta helburuak (Aparicio eta Portes, 2014). Atal honetan, giza kapitalaren bi alderdi aztertuko ditugu: lan-egoera eta prestakuntza-maila.

4. grafikoan, gurasoen ikasketa-mailari buruzko datuak ageri dira. Aitaren kasuan, bigarren mailako ikasketak dira ohikoenak: bertakoen % 65,8 eta jatorri atzeritarra dutenen % 59,6 dira bigarren mailako ikasketak egin dituztenak. Emakumeen kasuan, desberdintasun gehien adierazten duen kategoria hirugarren mailako ikasketak dira: bertakoen % 36,3 eta atzeritarren % 23,6 dira hirugarren mailako ikasketak egin dituztenak. Oro har, jatorri atzeritarra duten gazteen gurasoen artean ikasketarik egin gabeko pertsonen

portzentaje handiagoa dago, eta bertakoen gurasoen artean, berriz, hirugarren mailako ikasketak egin dituztenen portzentajea handiagoa da.

Gurasoen lan-egoera ere garrantzi handikoa da bigarren belaunaldien fenomeno ulertzeko, aurreko grafikoak adierazten duen bezala. Izan ere, bi kolektiboen arteko desberdintasun handiak ikusten dira 5. grafikoan. Okupazioari dagokionez, bertako gurasoak dituzten gazteen artean, aiten % 86,6k adierazi dute okupatuta daudela. Alabaina, jatorri atzeritarra duten gazteen aitei erreparatuz gero, zenbatekoa nabarmen txikiagoa da: okupazio-tasak % 65,9koak dira. Portzentaje horiek txikiagoak dira emakumeen kasuan; dena dela, bi kolektiboen arteko okupazio-tasetan desberdintasunak irauten du: % 69,8 bertako emakumeen artean eta % 50 jatorri atzeritarra duten emakumeen artean. Horren ondorioz, langabezia-tasa handiagoa da jatorri atzeritarra duten gazteen aiten eta amen artean (% 26,1 eta % 31,6 hurrenez hurren); bertako gurasoak dituztenen kasuan berriz, aiten % 7,5 eta amen % 19 daude lanik gabe.

4. grafikoa. Gurasoen ikasketa-maila, jatorriaren arabera, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Gurasoen lan-egoerari buruzko datuak eta haien ikasketak-mailari buruzkoak aztertu ostean, jatorri atzerritarra duten gazteen kolektiboa bera aztertuko du, bertako gurasoak dituzten gazteekin alderatuta.


Oro har, 3. taulan ikusten dugu desberdintasun nabarmena dagoela bi kolektiboen artean. Bertako gurasoak dituzten 16-24 urteko gazteen erdiak baino gehiagok (% 51,4) bigarren mailako ikasketak egin dituzte, eta % 15ek unibertsitateko ikasketak amaitu dituzte. Alabaina, atzeritarren ondorengoak diren eta adin-tarte berean dauden pertsonen artean, erdia baino gehiago dira lehen mailako ikasketak soilik egin dituztenak (% 58) eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenak % 5,4 dira.

Atzeritarren ondorengoak diren gazteen kolektiboa zehatz-mehatz aztertuz gero, Espainiako estatuan jaio direnak edo familia berriro elkartzearen ondorioz 4 urte bete aurretik etorritakoak (2.OB) dira hezkuntza-maila altuagoak dituztenak: % 44,5ek derrigorrezko ikasketen ondorengo bigarren mailako ikasketak egin ditu, eta % 9,5ek, berriz, unibertsitateko ikasketak. 5-11 urte zituztela gure lurraldera etorritakoek ere (1.5B) maila handiagoko hezkuntza izan dute, gainerako kolektiboekin alderatuta; hau da, EAera 12 urte edo gehiago zituztela etorri zirenekin alderatuta.

EAEko gazteen (17-24 urte) jarduerari erreparatuta, jatorri atzerritarra izan edo ez izan, 6. grafikoa ikusten dugunez, bi kolektiboetako gazte gehienak “beste egoera batean” daude, seguruenik ikasketak egiten, baina baita lan-merkatuan ere. Portzentaje hori askoz ere handiagoa da bertako gazteen artean. 17-24 urteko pertsona okupatuei dagokienez, bertakoen % 19,4 landunak dira, eta atzeritarren ondorengoak diren gazteen artean zertxobait handiagoa da landunen portzentajea (% 22,1). Desberdintasun hori alderantzizkoa da gazte langabeei erreparatuz gero: langabeen portzentajeak handiagoak dira atzeritarren ondorengoak diren gazteen artean.


6. grafikoa. Gazteen jarduera, jatorriaren arabera, 2011

■ Atzeritar jatorriko pertsonak ■ Bertako jatorria dutenak



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

5. grafikoa. Gurasoen lan-egoera, jatorriaren arabera, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

3. taula. Atzeritarren ondorengoak diren gazteen ikasketak-maila, 2011


	Bertako jatorria	Atzerr. jatorria	2.OB	1.5B	1.25B	1.0B
Ikasketarik ez/Lehen maila/DBH	34,0	58,0	46,0	74,9	70,2	52,6
Batzilergoa/Lanbide Heziketa	51,4	36,6	44,5	24,3	27,8	41,1
Unibertsitate ikasketak	14,6	5,4	9,5	0,8	2,0	6,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Bertakoen zein atzeritarren ondorengoak diren EAEko gazteen familia-egitura ere faktore garrantzitsua da kolektibo horrentzat, literatura soziologikoan adierazitakoaren arabera (Portes eta Rumbaut, 2001). Ildo horretan, 7. grafikoa ikus ditzakegu bi kolektibo horien familia-tipologiak. Bertako familien kasuan, gehientsuenak dira bi guraso eta seme-alabak (haietako bat, gutxienez, 25 urtetik beherakoa). Soilik % 11,4 bizi dira guraso bakarreko familietan, 25 urtetik beherako seme-alabaren bat dutela.

7. grafikoa. Familia-egiturak, jatorriaren arabera, 2011

■ Atzeritar jatorriko pertsonak ■ Bertako jatorria dutenak



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

Jatorri atzerritarra duten familien kasuan, bikotea eta seme-alabek (haietako bat, gutxienez, 25 urtetik beherakoa) osatutako familiak dira, halaber, ohikoenak. Dena dela, ez da bertako familien kasuan bezain nabarmena; zehazki, erdia da (% 51,7). Bestalde, bertako familietan ez bezala, bigarren tokian ageri den familia-egitura da bikote edo guraso bat, 25 urtetik beherako seme-alabaren bat eta beste pertsona batzuk (% 24,9).


Amaitzeko, etxebizitzari dagokionez, bertakoen zein atzerritarren ondorengoak diren gazteak bizi diren etxebizitza edukitzeko modua aztertuko dugu. Etxebizitza eskuratzea funtsezko faktorea da lehen belaunaldiko etorkinen integrazio-prozesuan, baita haien ondorengoentzat ere. Horrek garrantzi berezia du EAEko etxebizitzaren merkatuaren ezaugarriak kontuan hartuz gero: jabetzan oinarritutako eredia, alokairuko etxebizitzaren merkatu urria, eta etxebizitza babestuen gorakada etxebizitza-sustapen berrietan.

8. grafikoan oso joera nabarmenak ageri dira etxebizitza edukitzeko erregimenean. Bertako biztanleriari erreparatuta, ia denak etxebizitzaren jabe dira, guztiz ordainduta edo oraindik ordaintzen ari direla (% 90), eta alokatutako

etxebizitzetan bizi direnak oso gutxi dira (% 4,8). Atzerritarren ondorengoak direnen artean, aurkako joera dago: alokairua da gehienek aukera (% 58,5), % 10 guztiz ordaindutako etxebizitzetan bizi dira, eta % 25 oraindik ordaintzen ari dira. Desberdintasun hori ulertzen da, alde batetik, migrazio-prozesuaren etapek dakarten dinamikatik; izan ere, iritsi berri diren etorkinek etxebizitza eskuratzeko modua alokairua da, batez ere. Bestalde, eros-ahalmen urriagoa dute, eta lan-merkatuan sartzeko eragozpen gehiago dituzte.

Desberdintasun handiak ageri dira jatorri atzerritarra duten familien artean (4. taula). Izan ere, 2.OB kolektiboaren erdia etxebizitzaren jabe da (erabat ordainduta, ordaintzen ari dena edo oinordetzan hartua), eta gainerako kolektiboaren artean, berriz, egoera berean dauden pertsonen kopurua nabarmen txikiagoa da. Orobat, Espainiako estatura adin gehiagorekin etorri direnen artean, alokatutako etxean bizi diren pertsonen portzentajea nabarmen handiagoa da (1.25Bren kasuan % 83,6 eta 1.OBren kasuan % 80,1), hemen jaio direnekin edo familia berriro elkartzearen ondorioz 4 urte baino gutxiago zituztela etorri zirenekin alderatuta (2.OBren kasuan % 58,5).

8. grafikoa. Etxebizitza edukitzeko erregimena, jatorriaren arabera, 2011



Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

4. taula. Etxebizitza edukitzeko erregimena, Ikuspegiaren sailkapenaren arabera, 2011

Edukitzera-erregimena	Bertako jatorria	Atzerritar jatorria	2.OB	1.5B	1.25B	1.OB
Norberarena, erosita, guztiz ordainduta	34,1	10,2	14,2	4,0	3,8	4,5
Norberarena, erosita, oraindik ordaintzeko (hipotekak)	51,8	25,0	32,8	15,4	9,1	12,3
Norberarena, oinordetzan edo dohaintzan jasoa	4,2	1,6	2,1	1,2	0,9	0,6
Alokairuan	4,8	58,5	45,4	75,1	83,6	80,1
Doan edo prezio oso txikian utzita (beste etxegune batek, enpresak ordainduta...)	1,7	1,7	2,0	1,8	1,0	0,5
Beste moduren bat	3,4	3,0	3,5	2,6	1,6	2,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuak oinarri hartuta egin da

3. Ondorioak

- EAEn bizi dira guraso atzerritar bat gutxienez daukaten 0 eta 24 urte bitarteko 76.914 pertsona. Gehienak (% 60,6) 2.OB kategoriakoak dira; hau da, atzerritarren seme-alabak, Espainiako estatuan jaioak edota 4 urte edo gutxiago zituztela etorriak, familia berriro elkartzearen ondorioz.
- Bizkaia da gutxienez guraso atzerritar bat duten gazte kopuru handiena dagoen lurraldea (37.748 pertsona; % 49,1). Bigarren tokian Gipuzkoa dago (22.978 pertsona, % 29,9) eta azkenik Araba (16.188 pertsona; % 21).
- Atzerritarren ondorengoak diren eta EAEn bizi diren gazteen nazionalitate nagusia espainiarra da; izan ere, 32.827 pertsona (% 42,7) espainiarrak dira. Horieta gehientsuenak (% 93,3) 2.OB kategoriakoak dira: Espainiako estatuan jaio dira edo familia berriro elkartzearen ondorioz 4 urte artekoak zirenean etorriak. Pisu handiena duten beste nazionalitateak honako hauek dira: marokorak (% 8,4), errumaniarrak (% 7,6), kolonbiarrak (% 5,8) eta boliviarrak (% 5,1).
- Jatorri atzerritarra duten familia horien giza kapitalari eta egoera sozioekonomikoari dagokionez, haien adierazleak okerragoak dira, bertako biztanleriaren datuekin alderatuta, hainbat arlotan: ikasketa-maila, laneratzea... Bigarren belaunaldien kolektiboan ere ikusten dira alde horiek: ikasketa-maila apalagoa dute, eta gazteago sartzen dira lan-merkatuan, hezkuntza-maila apalago horren ondorioz. Gure iritziz, datu horiek garrantzi handia dute eta kontuan hartu behar dira, bigarren belaunaldien integrazio-prozesuetan eragin baitezakete.
- Labur esanda, EAEko gazteen % 15,9 atzerritarren ondorengoak ziren 2011n, azaldu dugunaren arabera. Horrenbestez, ikusten da aniztasuna gero eta handiagoa dela, eta egoera hau sendotu eta areagotu egingo dela hurrengo urteetan. Beste nolabait esanda: kultura- eta jatorri-aniztasuna etorri da gurrera, eta geratzekotan da, funtsezko tokia baitu jada EAEko gizartearen eta demografiaren egiturari.



Atzerritarren ondorengoak diren EAEko gazteei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi gure webguneko argitalpen sorta: “Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak”.